

Topalekua

53zk. 2009ko urria

octubre 2009 - n.º 53

orr. 1: *Gizarte Kontseiluak UPV/EHUREN kudeaketaren eta bere jardueraren jakinarazpenaren deszentralizazioa aztertuko ditu.*

orr. 2: *Bilkurak UPV/EHU-k Bizkaia S.A. Teknologia-Parkean parte hartzea onartu du.*

orr. 3: *2005. Urtean titulaturako pertsonen lan-munduratzeari egonkor mantentzen da nahiz eta krisialdian izan.*

orr. 4: *“Gizarte Kontseiluak enplegurako sarbidea indartu nahi du unibertsitatearen eremutik”*

Ekitaldi honetarako Plan Estrategikoan bildutako bi proiektu dira

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHUREN KUDEAKETAREN ETA BERE JARDUERAREN JAKINARAZPENAREN DESZENTRALIZAZIOA AZTERTUKO DITU

Urriaren 7an Bilbon izandako UPV/EHUREN Gizarte Kontseiluaren Bilkurak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko bi proiektu berri egitea adostu du, orotara 240.000 euroko aurrekontuarekin. Proiektu horiek, 2007-2010 Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoaren 2009 Plan Operatiboari dagozkionak, unibertsitate-ereduak eta UPV/EHUREN campusen gobernu eta kudeaketaren deszentralizazioa aztertuko dituzte. Halaber, informazioaren egitura eta edukiak bere jardura gizaritari jakinarazteko.

Lehen Proiektuaren helburua campusetan, unitate autonomi integral bezala, gobernu eta kudeaketako egiturak eta funtzioak ezartzeko proposamena egitea da. Horretarako, azterketa horrek legezko xedapenak edo gaur egungo egoera, funtzioen etorkizuneko banaketa, campusetako kudeaketa-organoen diseinua eta ezarpen-programa bilduko ditu. Proiektuaren aurrekontua 120.000 eurokoa da.

Bigarren azterketa, aurrekoak bezala 120.000 euroko aurrekontua duena, UPV/EHUREN jardura gizaritari jakinarazteko beharrezko informazioaren egitura eta eduki proposamenean oinarrituko da. Azterketa horrek, edukiak ez ezik, betetze-maila kuantitatiboa eta kualitatiboari buruzko aldizkako informazioa ere zehaztu beharko du. Halaber, jakinarazpen-formulak gomendatu beharko ditu, aldizkako txostenak igortzeko dagokion programazioarekin, era horretan, prozesuak egituratutako informazioa sordezan, ondorioak ateratzeko eta gardentasuna bermatzeko.

Bestelako gaiak

Bestalde, Gizarte Kontseiluak ondoko jarduerak egin ditu: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Garapenaren eta Mundu Ekonomiaren Unibertsitate-Institutua (HEGOA) Institutu misto bihurtzea proposatzea onartu du; “Giza Zientziak (Esperientziaren ikasgelak)” Aurre-graduako tituluaren matrikula prezioak ezarri ditu, 10 euroan kreditu bakoitza; aurrekontuetan aldaketa batzuk onartu ditu eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Euskoiker Fundazioak Unibertsitateari egindako dohaintza batzuk ezaugu ditu.

Azkenik, Kontseiluaren Bilkurak irakaskuntza eta ikerkuntzako pertsonalari ordainsari osagarri batzuk berresleitzea onartu du.

BILKURAK UPV/EHU-K BIZKAIA S.A. TEKNOLOGIA-PARKEAN PARTE HARTZEA ONARTU DU

Pasa den uztailaren 15ean Bilbon izandako UPV/EHuren Gizarte Kontseiluaren Bilkurak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen partaidetza onartu zuen Bizkaia Teknologia-Parkea sozietate anonimo publikoaren kapitalean, 188.000 m²-ko azalerako lurzorua emanda emakida administratibo kontzeptuan “UPV/EHU Zientzia Parkea” eraikitzeko.


Helburua industria-parke zientifiko eta teknologikoa eraikitzea da, “UPV/EHU Zientzia Parkea” izeneko, bikaintasun eta berrikuntzako zentroa, ikerkuntza, unibertsitatea-enpresa harremanak, sormena eta diseinua sustatzeko. Hori guztia, kalitate eta iraunkortasun parametroetara eta ezagueraren gizartera bideratuta. Enpresa berriak sortzeko eta garatzeko lekua, ezagueran eta ikerkuntzan oinarritutakoak, enplegu kualifikatu eta enpresa-proiektu lehiakorrek. Bestalde, Kontseiluak 6

berezko graduako tituluren eta 37 gradu-ondokoen prezioak onartu zituen 2009-2010 ikasturterako. Lehenengoei dagokienez, 2k aurreko prezioa mantentzen dute, 1ek eguneratu egiten du eta gainontzeko 3 berriak dira. Graduondoko tituluei dagokienez, 23k prezioa mantentzen dute, 4k eguneratu eta gainontzeko 10 berriak dira. Halaber, bilkurak Ikasketa Osagarrietako 5 ikastaroren matrikula-prezioak baliozkotu zituen.

Lankidetzako bekak

Halaber, Kontseiluaren Bilkurak unibertsitateko Sail desberdinen artean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak deitutako 125 lankidetzako beka eta Hezkuntza Ministerioak deitutako 8 lankidetzako beka banatzea onartu zuen.

Banaketa G9 Unibertsitate-Taldeak onartutako ekoizpen zientifikoko ekoizpen-baremoetan ezarritakoaren arabera



egin zen. Gainera, beken %30, deialdiaren baldintzak beteta, Sailen arteko banaketatik kanpo geratu diren ikasleentzat gorde dira.

Azkenik, Kontseiluak, indarrean den Plan Estrategikoaren testuinguruan, 2010. urtean garatuko dituen proiektuei oniritzia eman zien. Horrela, hurrengo ekitaldian, Urtekari Estatistikoa, Ikerkuntzako Produktuen Katalogoa, Enplegu-Behatokia, errendimendu-adierazleak eguneratu eta ikerkuntzako emaitzak jakinarazi ondoren, Gizarte Kontseiluak bost proiektu berriri ekitea proposatu zuen: berrikuntzako foroa diseinatzea, bueltatutako ikasleen bulegoa sortzea, UPV/EHU-Gizarte Kontseilua arteko batzorde mistoa abian jartzea, enplegu sorkuntzako leku berriei buruzko ikerketa egitea edo Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea nazioartean ezagutaraztea.

GIZARTE KONTSEILUARI AURKEZTUTAKO “UPV/EHU-REN JABETZAKO BALIABIDE FISIKOEN ETA HIGIEZINEN INBENTARIOA”

Pasa den ekainaren 18an, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluari “UPV/EHU-ren jabetzako Baliabide Fisikoen eta Higiezin Inbentarioa” aurkeztu zitzaion. Azterketa horren helburua UPV/EHUK bere hiru campusetan dituen eraikitako 650.000 m²-ren eta 205.000 m² lurzoru askeren erabilera-maila aztertzea zen, era horretan, irakaskuntza-erakundeari onura soziala eta ekonomikoa sor diezaioketen jarduera osagarriak egiteko aukera desberdinak aurkezteko.

Bilkurak 2009 Plan Operatiboaren proiektu desberdinak ere aztertu ditu, Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoa barne, eta “Unibertsitateko titulatuaren etengabeko prestakuntzako beharrak EAEko enpresetan eta UPV/EHuren egitekoa” berriro ere aztertzea adostu du. Azter-

keta horren helburua, aurrerapen teknologikoak ikusita, ondokoak dira: eszenatoki ekonomikoan diren aldaketa azkarrak, berrikuntza-beharrak plantillak zahartzearen ondorioz eta langabeziaren hazkundera. Halaber, Unibertsitate publikoa prestakuntzako eragile bihurtzea, dagokion titulazioa lortu duen enplegatutako populazioaren etengabeko hobekuntza laguntzeko, eta aukera paregabea izatea unibertsitatearen jardueraren eremua zabaltzeko.

Azkenik, Bilkurak ondokoak ebatzi ditu: UPV/EHuren irakasleentzako ordaindutako osagarriak esleitu edo berresleitzea, aurrekontuetan aldaketa batzuk egitea eta oniritzia eman du UPV/EHUK Basque Center for Cognition Brain and Language Fundazioan (BCBL Fundazioa) parte hartzeko.

2005. URTEAN TITULATUTAKO PERTSONEN LAN-MUNDURATZEA EGONKOR MANTENTZEN DA NAHIZ ETA KRISIALDIAN IZAN

Enplegu eta Gizarte-Gaietarako Sailburuak, Gemma Zabaleak; UPV/EHUko errektoreak, Iñaki Goirizelaia; eta UPV/EHUren Gizarte Kontseiluaren presidentek, José Miguel Martínez Urquijok, berriki *“Titulatutako pertsonak Bizitza Aktiboan sartzeari buruzko azterketa”* aurkeztu dute, 2005eko promozioari dagokionez, ezaugarri horiek dituen Gizarte Kontseiluak sustatutako zortzigarren Behatokia. Bertan ondorioztatzen denez, promozio horretako %87,7 lanean ari zen karrera amaitu eta hiru urte eta erdi ondoren; bitartean, langabezia-tasa %7,6koa da.

Azterketa horretarako, 78 titulaziotako 7.441 titulaturi egin zitzaion inkesta. Horren helburua berriki titulatu lan-merkatuaren gaineko datu fidagarriak eta aztergarriak eskaintzea da; halaber, oinarritzat hartzea etorkizunari eta Unibertsitateak eskaintako zerbitzu publikoa hobetzeko hartu beharreko neurriei buruz. Promozio horren ezaugarria adierazgarrienak ondokoak dira:

Enplegua

Karrera amaitu eta hiru urtera, **%87,8 lanean ari zen**; langabezia-tasa %7,6koa zen eta %5 inguruk ikasten jarraitzen zuen. Enplegu-tasa iaz baino 2 puntu txikiagoa da, baina orain arte aztertutako promozioak baino handiagoa.

Jarduera-tasa, nahiz eta oso altua izan (%95), aurreko promozioak baino puntu 1 txikiagoa da.

Ikasketa-eremuen arabera, aipatzekoa Osasuna, %95,6ko enplegu-tasarekin eta Karrera Teknikoak, %90eko tasa-rekin; jarraian, Ekonomiko-Juridikoak eta gainontzeko

Gizarte-mailakoak, %87,4rekin, Esperimentalak %83 eta Humanitateak %79,4.

Langabezia-tasa, aurreko promozioaren aldean, %0,7 igo da; hala ere, sexuen arteko distantzia murriztu egin da (gizonezkoak %7,4 eta emakumezkoak %7,7).

Ikasketak amaitu eta lehen enpleguaren arteko **batez besteko denbora** 8 hilabete ingurukoa izan zen, aurreko promozioen antzekoa. Osasun zientzietan titulaturak zian ziren gutxien eman zutenak lehen enplegua lortzen (batez beste 4 hilabete baino gutxiago); ondoren, karrera Teknikoetakoek (6 hilabete). Gainontzekoetan, epea 11 hilabete ingurukoa izan zen.

Hirugarren mailako prestakuntzari **ahokatutako enpleguak** (goi-mailako LH edo unibertsitate titulua eskatzen den lanpostua) ere eboluzio positiboa du eta %85ean kokatzen da, 1998ko promozioak baino 13 puntu gehiago.


Enplegua lortzea

Enplegua lortzeko bideei dagokienez, gizarte-kontaktuen galera eta Internet eta Unibertsitatea bera bezalako bideen hazkundera antzematen da. Lanean diren **%18k** enplegua **kontaktu** pertsonal, familiar edo sozialen bidez lortu bazuen, **%17k** lortu zuen **Unibertsitatearen** bidez, eta **%16k** Internet bidez.

Sexuen arteko desberdintasuna

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko distantzia murriztu egin da, enplegu tasak ondokoak direla: %88,2 eta %87,5 hurrenez hurren.

Lan-munduratzea. Lan-egoera graduatu eta hiru urte ondoren



SALDOA: epealdi osoan: enplegua ia 4 pp hazten da

azken urtean: enplegua jaitzi, inaktibitatea handitu eta langabezia arinki hazten da

- **ENPLEGU-TASA:** %87,8, Urt. Bariaz.: -2.1 pp. 1998-2005: hazkundera +3,8 pp
- **LANGABEZIA-TASA:** 7,6%, Urt. Bariaz.: +0.7 pp. 1998-2005: jaitziera -3,9 pp;
- **INAKTIBITATE-TASA:** 5%, Urt. Bariaz.: +1.5 pp. Egonkor -0,1 pp;

Lan-munduratzea. Enplegurako sarbideak


(Lanean den Populazioaren % enplegurako sarbidearen arabera)

Saldoa Prom. 1998-2005

▼ **TXIKITU:** Gizarte-kontaktuak, prentsa, CV bidalketa, ABLE

▲ **HANDITU:** Internet, unibertsitatea, enplegu publikoko lan-poltsa

■ **MANTENDU:** auto-enplegua, EZP, profesionalen elkargoa...



Ahokatutako enpleguetan **emakumezkoen** ratioa gizonezkoena baino 4 puntu txikiagoa da (%84 eta %88 hurrenez hurren), baina bien arteko distantzia murriztuz doa.

“Desberdintasunak emakume eta gizonezkoen egindako **prestakuntza-aukeraren** emaitzaren ondorio dira; hala-ber, lan-munduratze handiagoa edo txikiagoa duten titulazioen banaketa ezberdinean”.

Lanaldia eta mugikortasun geografikoa

%89k lanaldi osoa du, aurreko promozioak baino puntu bat gehiago.

Lanaldi partziala ohikoagoa da emakumezkoen artean (%14) gizonezkoetan baino (%6).

%51,3k “enplegu egonkorra du”. Osasuna da denborazkotan handiena duena (%26k baino ez du kontratu finkoa).

Hileko batez besteko diru-sarrera gordina, lanaldi osorako, 1.500 euro/hilean ingurukoa zen —urteko 14 hilabeteetan kalkulaturik—, iaz baino %5,8 gehiago.

Mugikortasun geografikoa, egoitza EAetik kanpo lan kontuak direla eta, %9,3koa izan zen promozio horretan, iaz baino 1,4 puntu gutxiago. %7,3 beste autonomia erki-degoetara joan zen bizitzera eta %2 atzerrira.

“Gizarte Kontseiluak enplegurako sarbidea indartu nahi du unibertsitatearen eremutik”

Gizarte Kontseiluaren presidentek, José Miguel Martínez Urquijok, aipatu zuenez, “era honetako azterketek, zerbitzu publiko bezala, gure betebeharren betetze-maila aztertze aukera eskaintzen digute”. Era berean, gogorarazi zuen Kontseiluak bestelako ekimen batzuk jarri dituela abian gure errealitatearen erradiografia zuzena izateko eta unibertsitatearen kudeatzaileen esku laneko tresna berriak jartzeko. Txosten eta azterketa horiek eskuragarri daude ondoko web orrialdean: www.gizartekontseilua.com

Inkestak eskaintako informazioari dagokionez, Presidenteak ondorio batzuk azpimarratu zituen:

- Gure Unibertsitateak gaitasun handia du bueltatu direnak lan-munduratze maila altua da eta gizarteak UPV/EHUK eskaintako prestakuntza baloratzen du.
- UPV/EHUK emaitza horiek jakinarazi behar ditu, agerian uzten dutenak euskal gizartearen aurrerapenean egindako lana.
- UPV/EHUK zerbitzu publiko bezala duen balore oso jar dezake eta jarri behar du, dituen instalazio paregabeak eta irakaslegoari atarramendurik handiena aterata —ikasleek eta gizarteak bikain baloratu dutena—.
- Lan-munduratze sarbideak unibertsitateetatik bertatik hobetu egin dira, baina indartu behar dira eta, horretarako, UPV/EHUK Gizarte Kontseiluaren laguntza izango du.
- Prestakuntza praktikoak eta enpresetako praktikek behar dituzten hobekuntzek Goi-Mailako Hezkuntzako Espazio Europarrera egokitzeko prozesuaren ondorioz hartu beharreko neurrien laguntza izango dute.